



GURASO BILERA

DBH 2

2025/2026 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA
2. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA
3. TUTORETZA
4. ORIENTAZIOA
5. METODOLOGIA ETA EBALUAZIOA
6. EGUNEROKO ARAUAK
7. BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA
8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK
9. OSASUN ARRETA

1. IRAKASLEAK ETA FAMILIEKIN HARREMANA

Ikasturtean zehar guraso bilera orokor bat egingo dugu. Horretan ikasturte berriari buruz arituko gara (helburuak, metodologia, eguneroko dinamikak...), bai eta nerabezaroaren ezaugarrien inguruan ere.

Bakarkako bi elkarizketa egingo ditugu gurasoekin ebaluazio-txostenen gaineko azalpenak emateko eta ikaslearen garapenari buruzko informazioa trukatzeko. Bilera horietaz gain, behar adina aldiz elkartuko gara zuekin, egoerak hala eskatuz gero.

Tutorearekin harremanetan jarri edo mezu bat helarazi nahi izanez gero, bere e-postara mezu bat bidali eta ahalik eta azkarren emango zaio erantzuna. Momentuan jaso beharreko mezua balitz, Ikastolako idazkaritzara deitu. Ikasleen bidez oharrak bidaliz gero, hauek idatziz egin beharko dira.

Horrez gain, gogorarazten dizuegu urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den ZURRIOLAKO ATARIA astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio horri guztiari webgunea atala gaineratu behar zaio, etengabeko kontsultagai gisa.

Atariarekin inolako arazorik izanez gero, idatzi alexiazalantzak@zurriolaikastola.eus helbidera. **Zuen datu pertsonaletan aldaketarik izanez gero**, idatzi ezazue idazkaritzara: idazkaritza@zurriolaikastola.eus.

DBH-REN CURRICULUMAREN ARLOAK ETA IRAKASLEAK

Bigarren mailan curriculumeko arloak eta irakasleak honakoak dira:

	2A (29)	2B (30)	2C (29)
Tutorea	Aroa Perea/Eider Zapirain	Lorea Etxeberria/ Josebe Muguruza	Usoa Arin/Eneko Apalategi
Euskara + Ikaskuntza Zerbitzua Komunitatean	Patxi Sarriegi		Ane Atxa
Gaztelania	Eider Zapirain	Patxi Sarriegi	Eider Zapirain
Ingelesa	Mauriñe Eizmendi	Larraitx Mendia	
Matematika	Usoa Arin	Josebe Muguruza	Eneko Apalategi
Natur Zientziak	Eneko Apalategi		Usoa Arin
Gizarte Zientziak	Aroa Perea		Joxan Oiz
Heziketa Fisikoa	Lorea Etxeberria		
Teknologia eta Digitalizazioa	Eneko Apalategi		
Musika	Amala Sarasua		
Plastika	Haritz Irureta		
Ongizate Fisiko eta Emozionala	Lorea Etxeberria + Itsaso Areizaga		
Frantsesa	Mauriñe Eizmendi + Eider Zapirain		

DBH-2Ako tutoreak: Aroa Perea eta Eider Zapirain:

aperea@zurriolaikastola.eus

ezapirain@zurriolaikastola.eus

DBH-2Bko tutoreak: Lorea Etxeberria eta Josebe Muguruza:

letxeberria@zurriolaikastola.eus

jmuguruza@zurriolaikastola.eus

DBH-2Cko tutoreak: Usoa Arin eta Eneko Apalategi:

uarin@zurriolaikastola.eus

eapalategi@zurriolaikastola.eus

Gainerako irakasleen helbideak Ikastolako webgunean dituzue ikusgai.

2. TALDEKATZEAK ETA ORDUTEGIA

Aurten DBH 2n ikasleek ez dute taldekatze aldaketarik, baina aukerako ikasgaiak izango dituzte eta ikasgai jakin horietan taldekatzeak ikasleen aukeraketaren arabera izango dira.

Hauek izango dira DBH2n aurten ditugun hiru taldeen ordutegiak:

DBH 2A  **Zurriola ikastola**

25/26 IKASTURTEA

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Ingelesa	Gizarte	Heziketa Fisikoa	Gizarte	Musika/Plastika	8:00-8:55
8:55-9:50	Gaztelera	Ingelesa		Aukeragaia		8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Gizarte	Euskara	Matematika	Euskara	Matematika	10:010-11:00
11:00-11:50	Aukeragaia	Natur Zientziak	Ingelesa	Tutoretza	Natur Zientziak	11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Teknologia eta digitalizazioa	Gaztelera	Natur Zientziak	Gaztelera	Ingelesa	13:10-14:05
14:05-15:00		Matematika	Euskara	Matematika	Euskara	14:05-15:00

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Euskara	Teknologia eta digitalizazioa	Musika / Plastika	Matematika	Heziketa Fisikoa	8:00-8:55
8:55-9:50	Gaztelera			Aukeragaia		8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Natur Zientziak	Matematika	Gaztelera	Natur Zientziak	Gizarte	10:010-11:00
11:00-11:50	Aukeragaia	Gaztelera	Ingelesa	Tutoretza	Euskara	11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Ingelesa	Euskara	Gizarte	Gizarte	Matematika	13:10-14:05
14:05-15:00	Matematika	Ingelesa	Natur Zientziak	Euskara	Ingelesa	14:05-15:00

ORDUA	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	ORDUA
8:00-8:55	Ingelesa	Gizarte	Natur Zientziak	Matematika	Ingelesa	8:00-8:55
8:55-9:50	Matematika	Euskara	Matematika	Aukeragaia	Euskara	8:55-9:50
9:50-10:10						9:50-10:10
10:10-11:00	Natur Zientziak	Ingelesa	Teknologia eta Digitalizazioa	Euskara	Matematika	10:010-11:00
11:00-11:50	Aukeragaia	Gaztelera		Tutoretza	Natur Zientziak	11:00-11:50
11:50-13:10						11:50-13:10
13:10-14:05	Gaztelera	Heziketa Fisikoa	Euskara	Ingelesa	Musika / Plastika	13:10-14:05
14:05-15:00	Gizarte		Gaztelera	Gizarte		14:05-15:00

3. TUTORETZA

Astean ordu betez izango da tutoretza saioa. Saio hauetan tutoreak hartuko du parte eta ikasleen zein taldearen jarraipena egiteko baliatzen da besteak beste. Ikasleentzat egunerokoan sortutako kezka, proposamen, e.a. helarazteko espazioa da.

Tutoretza saioetan ondorengo gaiak landuko ditugu:

- Ikaskuntza prozesuaren jarraipena eta orientazioa egitea.
- Heziketa emozionala: nork bere burua ezagutzea, norberaren estimua lantzea, autorregulazioa lantzea, ohitura osasuntsuak bereganatzea...
- Nerabeak eta sare sozialak. Sare sozialen erabilera egokia eta arriskuak saihesteko estrategiak landuko ditugu.
- Genero bortizkeriaren prebentzioa.
- Harreman afektibo-sexuala beraien adinari egokituta lantzea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea: enpatia eta asertibitatea bultzatzea, lankidetzat sustatzea, kideen arteko komunikazioa bultzatzea, kideen arteko harremanak zaintzea, parekidetasuna, talde kohesioa, "bullying"-aren prebentzioa.
- Ikastolako bizimodu eta antolaketan partaidetza aktiboa izatea: DBHko Batzordea, Euskara Batzordea, ekintza berezien antolaketa...
- Ikas - tekniken lanketa.

4. ORIENTAZIOA

Beste ikasturteetan bezalaxe, gurasoek dituzuen kontsultak egiteko, aholkularitza zerbitzua erabil dezakezuela gogorarazten dizuegu. Horretarako Hurrako orientatzailearekin harremanetan jar zaitezke tutorearen bitartekaritza erabiliz, ikastolara deituz edo posta elektroniko bidez.

orientatzailea@zurriolaikastola.eus

5. METODOLOGIA eta EBALUAZIOA

DBHko maila guztietan hiru ebaluazio-txosten jasoko dituzue ikasturtean zehar. Ebaluazio hauetako bakoitzean tutoreak gutxienez bi aldiz izango du ikasleen bilakaeraren berri beste arloetako irakasleengandik.

Ebaluazio jarraituaren notifikaziorako tresna Alexia izango da eta adierazitako datetan izango dituzue ikusgai txostenak:

1. EBALUAZIOA	Abenduaren 9an
2. EBALUAZIOA	Martxoaren 6an
3. EBALUAZIOA	Ekainaren 5ean
OHIKO DEIALDIA	Ekainaren 23an

1.- EKI PROIEKTUA

2013/14 ikasturtean Zurriola Ikastola, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko ikastola gehienekin batera, **EKI proiektuan** murgildu zen DBHn. Proiektu honen xedea konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzaren diseinua eta aplikazioa da, beti ere euskal curriculum aintzat hartuta.

Helburua ikasleak ezagutzak eskuratzea eta ezagutza horiek egoera baten aurrean **integratzea eta transferitzea** da. Hau da, ikasleak eskuratuko dituen edukiak eguneroko bizitzan izango dituen hainbat egoeratan, modu eraginkorrean erabiltzea eta aplikatzea.

Batetik, funtsezko konpetentziak landu eta ebaluatuko dira, eta, bestetik, konpetentzia espezifikak (arloekin loturik daudenak).

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK

Ikasleek arrakastaz aurrera egin ahal izateko eta beren bizitzan zehar erronka eta desafio nagusiei aurre egin ahal izateko ezinbestekotzat jotzen diren jardunak dira. Pertsona guztiek beren errealizazio eta garapen pertsonalerako behar dituzte, bai eta herritartasun aktiboa, gizarteratzea eta enplegua sustatzeko ere.

8 dira Funtsezko Konpetentziak:

1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
2. Konpetentzia eleaniztuna
3. Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia
4. Konpetentzia digitala
5. Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
6. Herritartasunerako konpetentzia
7. Ekintzailetza-konpetentzia
8. Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

Ikasleek arlo eta jakintzagai bakoitzaren oinarrizko jakintzak behar diren jardueretan edo egoeretan jokatu ahal izateko beharko dituzten jardunak dira, funtsezko konpetentziak zehazteko elementuak.

2.- EBALUAZIOA

EBALUAZIO HEZIGARRIA

Ikuspegi hezigarria dugu helburu prozesu osoan, ebaluazioan zehar ikasleak berak bere prozesuaren kontzientzia har dezan. Horretarako, irakaslearekin batera ikasleak bere bilakaera ezagutu eta hobetu beharreko arloak identifika ditzaten lan egiten dugu, aurrera egiteko estrategiak zehaztu ahal izateko.

EBALUATZEKO ESKALA

Ikaslearen ikas prozesua ebaluatzeke ondorengo eskala erabiliko da.

- | | |
|--|--------------------------|
| 1. Helburua ez du lortu: | maila XUMEA |
| 2. Helburua lortu du baina justu : | maila OINARRIZKOA |
| 3. Ondo lortu du nahiz akatsen bat eduki: | maila EGOKIA |
| 4. Oso ondo lortu du: | maila BIKAINA |

BULETINA

Hiruhileko bakoitzaren amaieran ikasleak bere garapenaren berri ematen duen buletin bat jasoko du. Ebaluazio amaierara iritsi baino pixkatxo bat lehenago emango dizuegu buletin horren egituraren berri.

BERRESKURATZEAK

Lehen eta bigarren hiruhilekoen amaieran arloko ezagutzetan oinarizko maila eskuratu ez den arloetan, berreskuratzeke aukera bat izango dute ikasleek, ondorengo datetan eta arratsalde:

1. berreskuraketa probak	Abenduaren 16tik 18ra
Emitzen jakinarazpena	Urtarrilaren 9a
2. berreskuraketa probak	Martxoaren 16tik 18ra
Emitzen jakinarazpena	Martxoaren 27a

OHIKO DEIALDIKO PROBAK

Ikasturtearen amaieran, oinarrizko maila lortu ez duten helburuak berreskuratzeko azken aukera izango dute, ekainaren 15, 16 eta 17an. Data hauek kontuan har itzazue oporraldiak antolatzeke garaian.

IAZKO ARLO PENDIENTEEN BERRESKURATZE PROBAK

Ikasle bakoitzak arloko helburu pendienteak gainditzeko hiru aukera izango ditu ikasturtean zehar.

Irailean izan dute dagoeneko ekainean negatibo ebaluatutako arloak gainditzeko aukera eta egoera horretan dauden ikasleen gurasoek jaso dituzue dagoeneko emaitzak.

Iazkoak gainditzeko hurrengo proba egunak data hauetan izango dira:

2. ebaluazioaren barruan	Probak urtarrilaren 14an arratsaldez Emitzen jakinarazpena urtarrilaren 19an
3. ebaluazioaren barruan	Probak ekainaren 3an goizez Emitzen jakinarazpena ekainaren 8an

MAILAZ IGAROTZEKO IRIZPIDEAK

Ikasleak ikasturte batetik bestera igaroko dira ikasgai guztiak gainditzean, edo ebaluazio negatiboa gehienez bi ikasgaitan dutenean. Ikasturtea errepikatuko dute hiru ikasgai edo gehiagotan ebaluazio negatiboa dutenean.

Salbuespen gisa, hiru ikasgaitan ebaluazio negatiboa duen ikasle bat hurrengo ikasturtera igaroko da irakasleen iritziz, ebaluazio negatiboa duten ikasgaiak oztopo ez badira hurrengo maila arrakastaz gauzatzeko.

Gainditu gabeko arloren batekin mailaz igarotzen bada, ondorengo ikasturtean aukera izango du berriro ere gai horiek berreskuratzeke.

JARDUERA EBALUAGARRIEN BERRIKUSKETA EGITEKO PROZEDURA

Ikasleek edo beren guraso edo ordezkari legalek eskubidea dute euren kalifikazioan eragina izango duen edozein azterketa edo proba idatzia zuzenduta eta kalifikatuta ikusteko.

Ikasleen gurasoek edo ordezkari legalek gainera, idatzizko proben kopiak etxera eramateko eskaera egin dezakete, behean zehaztutako prozedurari jarraituz.

- Eskaera idatziz egingo dute lan edo proba zuzenduta jaso eta aste bete pasa baino lehen, [inprimaki hau](#) bete eta tutoreari edo arloko irakasleari e-mailez helaraziz.
- Ez da eskaera orokorrik onartuko eta ariketa edo proba bakoitzarentzat eskaera bat aurkeztu beharko da.
- Kopiaren erabilera pribatua izango da eta eskatzaileak azterketa ez zabaltzeko konpromisoa hartuko du.

Irakasleak, egoki baderitzo, lan edo probaren kopia eman aurretik bilera bat egingo du ikasle edo/eta guraso edo ordezkari legalarekin azterketa elkarrekin ikusi eta aztertzeke.

EBALUAZIOAREN INGURUKO DESADOSTASUNA AGERTZEKO PROZEDURA

1. Kalifikazioak (partzialak edo behin betikoak) jakitera eman ondoren (edota gurasoek horien berrikusketa egin edota kopia jaso ondoren), 2 laneguneko epea egongo da kalifikazio horien aurkako desadostasuna adierazteko inplikaturako irakasleari, eta honek 2 laneguneko epean erantzungo dio desadostasunari.
2. Ikaslea ados ez badago, honela jokatu beharko du: desadostasuna tutorearen aurrean agertuko da, eta tutoreak ikasketa buruari adieraziko dio, berak dagokion irakaslearekin hitz egingo du, dagozkion azalpenak jasotzeko. Ikasketa buruak kontsulta egin diezaioke ikasgaiaren departamendu taldeari, egoki baderitzo.

AZKEN KALIFIKAZIOEN KONTRAKO ERREKLAMAZIOA EGITEKO PROZEDURA

- 1) Ohiko eta aparteko deialdiei dagozkien kalifikazioen aurkako erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio zuzendariari (zuzendaria@zurriolaikastola.eus), kalifikazioa jaso eta 2 laneguneko epean.
- 2) Zuzendariak dagokion departamenduari aurkeztuko dizkio erreklamazioak eta departamenduak erabakia hartu eta txosten arrazoitua eman beharko du. Aparteko deialdian lortutako kalifikazioaren aurkako erreklamazioen kasuan, txostenak zehaztu beharko du ea proba bat datorren programaturako edukiekin, ikasgaiaren helburuekin eta ezarritako eta jakitera emandako ebaluazio- irizpideekin.
- 3) Erreklamazioari oniritzia emanez gero, ikasketa buruak kalifikazio berria aktetan eta bestelako agirietan idatzi beharko du araudizko prozedurari jarraikiz eta zuzendariaren oniritziarekin.

6. EGUNEROKO ARAUAK

Ikasleen arautegia Zurriolako web orrian duzue eskura. Hala ere, egunerokoan duten intzidentziagatik, hemenxe aipatzen dizkizuegu zenbait:

- **Puntualitatea:** Ikaslea berandu heltzen denean, atea jo eta irakasleak ez badio sartzeko baimenik ematen, zaintza-gelara joan beharko du. Joan ezean, justifikatu gabeko hutsegitezat hartuko da. Klase tarteetan edo jolas garaiazen ondoren gertatzen bada eskola orduraz kanpo errekuaratu beharko du galdutako denbora, lehenengotik Batxilergoan eta hirugarrenean DBHn.
- Ikastolara ekartzen den materiala (sakelekoak, liburu elektronikoa...) ikaslearen ardurapean dago, hala ere, komenigarria litzateke gisa honetako materiala ikastolara ez ekartzea.
- **Dispositiboak** (Chromebookak) ikastolarenak dira, baina ikasleek ordenagailu bana esleituta izango dute DBHko ibilbidean zehar eta beraiena balitz bezala zaindu eta erabiliko dute. Gailu hauek egunero etxera eramateko edota egunero ikastolan uzteko aukera izango dute ikasleek (ikasturte hasieran bidalitako galdetegian dagoeneko egin dute aukeraketa) eta hurrengo egunerako bateria kargaturik izateko konpromisoa hartuko dute. Dispositibo hauen intzidentziak Ikastolan bertan kudeatuko dira. Gailuarekin arazoren bat izanez gero, Ikastolako IKT Taldeak kudeatuko du arazoa eta konponketa. Berme horrek barne hartzen ez dituen konponketak, gurasoek beren gain hartu beharko dituzte. Ordenagailua lanerako materiala da. Irakasleak esaten duenean irekiko dute ikasleek eta irakasleak esaten duenean itxi egingo dute. Klase tarteetan ez dute erabiliko. Ordenagailua ez dute lanerako ez den ezertarako erabiliko.

- **Sakelekoa (mugikorra), erloju adimentsua eta bestelako gailu elektronikoak** ezin dira Ikastolako eremu osoan erabili, ezta eskola-orduetatik kanpo ere. Erabiltzen ari ez dela hots egiten badu edo erabiltzen ari baldin bada, irakasleak gailua kenduko dio eta idazkaritzan gordeko da. Familiei mezu baten bidez emango zaizue honen berri eta guraso edo tutore legala etorri beharko da gailuaren bila.
Azterketetan (edo antzekoetan), ezingo da gailua soinean edo mahai inguruan izan, gordeta egon beharko du, eta irteeren kasuan DBH 1etik 4ra Ikastolako eremutik kanpora egiten diren irteeretan Ikastola barruko araudi bera aplikatuko da, eta ezingo da gailurik erabili. Salbuespena egingo da egonaldi batzuetan, ezaugarri bereziak dituztelako. Horietan, irakasleek hala adierazten dutenean erabili ahal izango dute gailua ikasleek. (gaur egun, DBH 2ko eski-bidaia, DBH 4ko ikasketa-bidaia, DBH 4ko Herberehetako elkartrukea).
- **Asistentzia-hutsegiteak.** Asistentzia-hutsegitearen justifikazioa eskola-agendan edo mezu elektroniko bidez helaraziko zaio arloko irakasle eta tutoreari. **Ahal den guztietan aurrez egitea eskatzen dizuegu.**
- Eskola orduetan **Ikastolatik ateratzeko** gurasoen baimen idatzia beharko da **aldez aurretik**.
- **Aste-egitaraua.** Lehen Hezkuntzatik erabiltzen duten tresna da eta etapa honetan honen erabilerak garrantzia berezia du. Gogora ezazue ez dela ikaslearen agenda pertsonala eta kontuan izan bi helburu nagusi dituela:
 - Batetik, ikasleak bere lanak antolatzeko tresna da eta noizean behin horren jarraipena egitea komeni da.
 - Bestetik, irakasle eta gurasoen arteko komunikazio tresna da: bertan puntualitate gorabeherak, jokabide arazoak, asistentzia-hutsen justifikazioak... elkarri komunikatuko dizkiogu.

- Proba egunetan aurreko saiora/saioetara justifikaziorik gabe huts egiten duenak ezin izango du proba egin.
- Berreskuraketa egunetan probak arratsaldez izango dira. Goizeko saioen batera justifikaziorik gabe huts egiten duenak, ezin izango du probarik egin.

Aipatutako arauak ikastolaren eguneroko funtzionamendurako ipinitakoak dira. Arau horiek elkarbizitza eta ikastolako helburuen lorpenera bideratuta daude. Ondorioz, guztiok errespetatu eta errespetarazi behar ditugu.

JANGELA ZERBITZUA ERABILTZEN DUTEN IKASLEEK BETE BEHARREKO ARAUAK

- Ikasleek jangelan bazkaldu behar ez duten egunetan, gurasoek aurrez adierazi beharko dute Hurrako jangelara deituta edo jangelahurra@zurriolaikastola.eus helbidera idatzita.
- Jangelako erabiltzaileek ikastolako araudia errespetatu beharko dute.
- DBH2 mailako ikasleek 12:40ean bazkalduko dute.
- Ikasleak elikagaiekin loturiko arazorik duen kasuetan (alergia, intolerantziak...) eta Hurrako jangelan lehen aldiz gelditzen bada (DBH 1ekoa delako edo orain arte jangelakoa ez zelako) edo arazoa berria bada, osasun fitxa betetzeaz gain, jangelako arduradunekin harremanetan jartzea eskatzen dizuegu.

7. BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA

BIGARREN HEZKUNTZAKO BATZORDEA: IKASLE ETA IRAKASLEAK ELKARTZEN DITUEN BATZORDEA

Ikasleek Ikastolaren jardunean eta kudeaketan parte hartzea da batzorde honen helburua. Horren bidez, ikasleak Ikastolako partaide arduradun izan daitezen bultzatu nahi da, Ikastolaren helburu nagusiak hedatu eta garatzeko ekimenak proposatuz, bultzatuz eta antolatuz.

Batzorde honetan DBHko araudia, eskola-antolakuntzako gaiak, irteerak, hutsegiteak eta, oro har, etapa honetako ikasleei dagozkien gaiak aztertu, erabaki edota dagokionari aurkeztu eta proposatzen dira.

Batzorde honen **partaideak** honela banatzen dira:

- Ikasleen ordezkariak 18 (gela bakoitzetik ordezkari bana).
- Irakasleen 3 ordezkari: Aitor Artola, Amaia Elorza eta Beñat Salaberria.
- Gaiak hala eskatuko balu, guraso ordezkariak ere deituko lirateke.

Ikasleen ordezkari aukeraketa

DBHko ikasle talde bakoitzak bere ordezkariak aukeratzen ditu, bata izenduna eta bestea ordezkoa.

8. IRTEERAK, JARDUERA OSAGARRIAK ETA OSPAKIZUNAK

IRTEERAK:

Ikasturtean zehar hainbat irteera egin ohi dira urtero, goiz-pasa, egun-pasa edo egun batzuetakoak. Horietako batzuek helburu akademikoekin lotura zuzena dute, beste batzuek, ordea, elkarbizitzarekin edo bestelako zehar konpetentziekin.

Irteerak eskola-jarduerak dira, eta, horregatik, ikasle guztiak behartuta daude horietan parte hartzera. Ikasleak joan ezin duenean, beste edozein asistentzia-hutsegite bezala justifikatu beharko dute gurasoek, eta jakin bezain laster adieraztea eskertuko genizueke, irteeraren antolaketa oztopa ez dezan. Autobusaren gastua ikasle guztien artean banatuko da. Gainerako gastuei dagokienean, diru-itzulketa egingo zaie joan ez diren ikasleei, posible den neurrian.

Ikasturtean zehar zenbait irteera egingo ditugu, hainbat helbururekin: kohesioa lantzea, Donostiako txokoak ezagutzea, kultur-jarduera desberdinak egitea, jarduera fisikoaz gozatzea... Zurriolako Atariaren bidez emango dizuegu irteera horien berri, eta kosturik balute, errezibo bidez kobratuko zaizkizue. Lehena, irailaren 23an egingo dugu, gelaka, eta helburua ikasleen arteko harremanak sendotzea da. Gainera, neguko asteburu batean eski-irteeran parte hartzeko aukera izango dute DBH2ko ikasleek.

JARDUERA OSAGARRIAK

Ikasturtean zehar, hainbat ekintza gauzatu ohi ditugu ikasgai jakin batzuetako eduki eta konpetentziak lantzeko, bai eta zeharkako konpetentziak lantzeko ere. Ekintza horietako batzuk Ikastolan bertan egiten dira, eta beste batzuk, aldiz, Ikastolatik kanpo. Aurten burutuko ditugun ekintzen berri ematen joango gara.

OSPAKIZUNAK

Ikasturtean zehar, Euskal Herriko eta Donostiako kultura ondarearen ezaugarri diren hainbat ospakizun burutzen ditugu. Gure ikasleek gizartearen kultur-adierazpen hauek ezagutzea eta horiekiko jakin-min eta begirunea izatea ikastolaren xedeetako bat da. Hortaz gain, momentu aproposak izaten dira Ikastolako ikasle, irakasle eta familiak elkartzeko eta gure kultura eta izaera auzora zabaltzeko.

Ospakizun hauek hurrengo datetan egitea aurreikusten dugu:

- Euskararen eguna: abenduaren 3an
- San Tomas: abenduaren 19an
- Gabon eguna: abenduren 24an
- Danborrada: urtarrilaren 19an
- Kaldereroak: otsailaren 6an
- Korrika: udaberrian
- Ikastolaren Eguna: maiatzaren 16an

Data hauek gerturatzen ari diren heinean, hauen berri emango zaizue.

Danborrada, kaldereroak eta inauteriak ospatzen ditugun egunetan, ikasleak arratsaldeko ospakizunetara boluntario etorriko dira. Gure aldetik ekintza hauetan parte hartzera animatu nahi ditugu, euskal nortasuna bultzatuko duen beste ekintzetan parte hartzera bultzatuko ditugun bezalaxe.

Boluntarioki parte hartuko dutenen zerrenda aurrez eskatuko da, eta jaialdian parte hartzeko konpromisoa eskatuko zaie, baita prestatzeko egin behar diren jarduerak egiteko ere.

9. OSASUN ARRETA

OSASUN OROKORRA

MEDIKAZIOA EMATEKO BAIMENA

Aurretik osasun-fitxaren bitartez adierazi zenigutena aplikatuko dugu aurten ere ikasleei botika ematerako orduan. Orduz geroztik **aldaketaren bat eman bada** (ikaslearen osasun egoera, har ditzakeen botikak...) lehenbailehen idatziz adieraziezaguzue gure datuak eguneratu ditzagun eta ikasleari behar bezalako arreta eskain diezaiogun. Osasun-fitxarik bete ez baduzue, Osakidetza medikuek eta Hezkuntza Saileko ordezkariak prestatutako fitxa helaraziko dizuegu. Bertan bi atal nagusi dituzue:

- Lehenengo atala krisi egoera bat sorraraz dezaketen gaixotasunen bat dutenek bete behar dute. Hala denean, arren, ekar ezazue medikuaren txostena. Bertan, ikasleak krisiren bat izanez gero Ikastolako kideok nola jokatu behar dugun adierazi behar da.
- Bigarrena orokorra da, denek betetzea eskatzen dizueguna. Bertan, gurasoek adierazi behar duzue Ikastolari baimena ematen diozuen ala ez ikasleari botika emateko:
 - Analgesiko edota antiinflamatorio orokorrak seme-alabari emateko baimena ematen ote duzuen adierazi. **Bai** ala **ez** adieraz ezazue, arren.
 - Gaixotasun kronikoa duelako beste sendagairik ematea eskatzen duzuenean (bronkodilatadoreak...) botikarekin batera medikuaren txostena ere ekar ezazue, arren, botika emateko jarraibideekin.

Fitxa beteta eta sinatuta helaraziezazue tutoreari, arren.

ISTRIPUEN KUDEAKETA (BETI POLIKLINIKAN)

Ikastolak ikasleentzat kontratatutako aseguruia Mapfreren bitartez bideratzen da. Aseguruetxe honek hitzarmena du Donostiako POLIKLINIKA eta QUIRON osasun-zentroekin. Istripu bat Ikastolako eremuan gertatzen denean, bai eskola-orduetan, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere, ikasleak bi zentro hauetako batetara (larrialdietara) eramango dituzue. Bertan, Ikastolatik prestatu zaien "istripu parteia" erakutsi beharko dute. Istripu parterik ez balego (idazkaritza itxita dagoelako edo istripuaren ondorioak ikastola orduetatik kanpo sumatu direlako), Zurriola Ikastolako ikaslea dela adierazi eta parteia hurrengo egunean jasoko dutela esanda, artatuak izango zarete. Hurrengo egunean abisua eman idazkaritzan gertatutakoarekin, parteia bidali dezagun.

Norbaitek hitzartutako zentru hauen ordeiz Osakidetza zerbitzuak erabiltzea erabakiko balu, jakin, behin prozesua bertan abiatuz gero, ondorengo pausoak ere Osakidetza eman beharko direla, beraien prozedurak eta tempusak jarraituz. Kasu honetan, Ikastolako asistentzia-parteearekin prozedura berdina jarraitu beharko da, hau da, aldezturik prestatutakoa eraman edo hurrengo egunean ikastolan abisua eman, parteia bidali dezagun.

Ohar honen gaztelerazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.

La versión de castellano de este documento está disponible [aquí](#).